

Diru sarrerak lortzeko bide hauek iruditzen zaizkigu egokienak:

- Formakuntzak emateagatik jasoko dugun dirua. Formakuntzak 9 bloke izango ditu, eta horretarako lau hilabetetako formakuntza izango da 9 saiotan banatuta (bloke bakoitzeko saio bat eta aniztasun funtzional mota bakoitzari 3 klase dedikatuko zaizkio, gutxi gorabehera). Lau hilabetetako formakuntza honek 3.500€ko kostua izango du pertsonako.
- Publizitatea: Aipatu bezala, erakunde eta zentro ezberdinei publizitatea egingo diegu gure erakundearentzako diru-sarrera batzuk lortzeko. Horretarako, aniztasun funtzional mota ezberdinak pairatzen dituzten pertsonak erabili ohi dituzten materialak aztertuko ditugu zenbait erakunderen laguntzaz (adibidez, once edo lantegi batuak) eta gure helburuak lortzeko baliabide material egokienak zeintzuk diren aztertuko dugu (triptikoak, posterrak, hitzaldiak ikastoletan, ahoz-ahoko deia, webgunea...) . Gero, baliabide hauek eskaintzen eta saltzen dituzten enpresa eta markekin kontaktuan jarriko gara, eta hauekin akordioetara heltzen saiatuko gara. Honetarako ezinbesteko tresnak izango dira sare sozialak, bai hauekin kontaktuan jartzeko eta bai marka hauei publizitatea egiteko. (400€ inguru)
- Ingurua moldatzeko diseinua: Posible den heinean, eskola guztiak ahalik eta inklusiboenak bihurtu nahi ditugu. Hau da, formakuntza bat emateaz gain zentro bakoitzaren diseinu bat egin dezakegu, azpiegiturretan eraldaketak proposatuz; arrapalak gehitu, igo gailuak jarri, eskailerak kendu edo moldatu, ikasgelen egitura aztertu, solairuen banaketa, mahaien eta aulkien altuerren kontrola izan..... Aipatutako diseinu berri hau kobratuko dugu. (600€)
- Ikusmen murriztasuna dutenentzat ikasketa-liburuen audioliburuak egin, honetarako, eskola liburuen argitaletxeekin ere elkarlanean ibili gaitezke eta produktu hau saltzeko orduan kobratu. (50€). Audioliburu bat ozenki irakurritako liburu baten edukiaren grabazioa da. Hitz egindako liburu bat. Audioliburuak ikusmen-urritasuna duten pertsonen kultura, entretenimendua, ikaskuntza eta laguntasuna ematen diete. Gizarteratzeko eta garapen profesionalerako funtsezko tresna bat da.